



GAZTERIAREN EUSKAL LEGEAREN PROIEKTUAK ENPRESAN DUEN ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

Ekainaren 28ko 16/2012 Legeak (Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzekoak) 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz.

Enpresa-jardueran izango duen eraginari buruzko txostena ekainaren 28ko 16/2012 Lege horren III. kapituluan (“sinplifikazio administratiboa”) kokatzen denez, haren xedea da aztertzea ea arauak administrazio-kargak areagotuko dituen jarduera ekintzaileak sustatzearekin lotutako enpresen sorreran. Hori guztia, kontuan hartuta aipatutako lege horrek administrazio-jarduerak sinplifikatzeko tresnak sortzearen alde egiten duela, euskal enpresa txikiei erraztasun handiagoak emate aldera. Sinplifikatze- eta arrazionalizazio-prozesu baten esparruan, legearen xedea da euskal administrazio publikoek, pixkanaka, ekintzailetza-jarduerari kostu handiagoak eragiten dizkieten administrazio-kargak murriztea eta desagerraraztea.

Aipatutako lege horren 2.2 artikulua xedatzen duenarekin bat, lege honen ondorioetarako, ekintzaileak hauek dira: “*Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan jarduera ekonomiko bat garatu ahal izateko aurretiazko tramiteak egiten ari diren pertsona fisikoak, forma juridikoa edozein izanda ere, edo jardueraren bat betetzen dutenak autonomo gisa, kooperatibista gisa edo mikroenpresetako nahiz enpresa txiki eta ertainetako edo lan-sozietateetako bazkide gisa edo bestelako merkataritza-formula baten bidez, beren zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela*”.

Goiburuan aipatutako lege-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan gazteria-arloko politika garatzeko arau- eta eskumen-esparrua arautzen du. Helburua, berriz, gazteei beren eskubideak baliatzeko babesa eta bideak ematea da, haien izaera edo baldintzak edozein direla ere, eta gazteen parte-hartzea sustatzea gizartearen garapen politiko, sozial, ekonomiko, iraunkor eta kulturean, bai eta beharrezko baldintzak sortzea ere, haien autonomia eta emantzipazioa bultzatzeko, haurtzaroan hasitako etengabeko prozesuaren amaiera gisara.

Horrela, administrazio publikoek gazte-politika integrala bultzatzeko dituzten eskumenak eta eginkizunak arautzeko premiari erantzuten dio Gazteriaren Euskal Legeak. Politika horrek, batetik, gazteak emantzipatzea eta gizarteratzea posible egingo duten neurriak hartzen ditu barne, gazteriaren arloko zeharkako politikak planifikatuta, egikarituta eta ebaluatuta.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1ERN-7T60 bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/Donostia-SanSebastian>, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1ERN-7T60 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>



Bestetik, gazteriaren sustapena hartzen du barne; administrazio publikoetako zenbait sailek gazteentzat berariaz funtzionamenduan jarritako jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak eskainita, eta betiere gazteen euren partaidetza sustatuko duten prozesuak eta bideak erabilia, helburua gazteek herritar gisa dituzten eskubide eta askatasunak baliatuko dituztela bermatzea izan behar delarik.

Gazteriaren Euskal Legeak, azken batean, gazteengan eragin zuzena duten politika sektorialen koordinazio-lanean urteetan egindako ahalegin handia finkatzen du, eta, beraz, EAEko erakunde guztiek baliozkotutako ibilbide bat amaitzen.

Ildo horretan, gazteentzako jarduerari, zerbitzuei eta ekipamenduei dagokienez, goiburuan aipatutako lege-proiektuak “Gazteriaren Euskal Sistema” sortzen du, gaur egun dauden gazteentzako jardueren, zerbitzuen eta ekipamenduen multzo egituratu moduan, berorietako profesionalak barne hartuta. Hortaz, ez da inolako jarduerarik, zerbitzurik edo ekipamendurik sortzen, baina daudenak egituratu egiten dira, Gazteriaren Euskal Lege-proiektuko Sistemaren “Jarduera-arloak” atalean zehazten diren bezala:

Gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu horiek erregelamenduzko xedapen hauek dituzte, eta indarrean jarraituko dute, Gazteriaren Euskal Legea onartu ondoren:

- Jarduera-araubidea: *170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena.*
- Eragileen prestakuntza, lehenengoz 1985ean arautua, eta 1994an eta 2016an eguneratua: *419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena; eta Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzekoa.*
- Gazte-informazioa: *14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Tegi Koordinatzailea sortzen duena eta 211/1993 Dekretua, 1993ko uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespenez ofiziala arautzen duena.*
- Gazteentzako aterpetxeak eta beste instalazio batzuk: *406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldiarentarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa eta Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena, aipatu dekretu hori garatzen duena.*
- Nazioarteko gazte-txartela: *260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko "Gazte-Txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko dena*

- Gazte-elkarteen eta gazteei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeen zentsua: *Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailarena. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkioten erakundeen zentsua sortzen da.*

Jarduera, zerbitzu edo ekipamendu berririk aurreikustez ez denez, eta, horrenbestez, zerbait sortzeko edo, hala egokituz gero, aldatzeko ondoriozko erregelamenduzko garapenik egin behar ez denez, Gazteriaren Euskal Lege-proiektuak ez die eragiten enpresa pribatuei. Hartara, legeak ez du arautzen enpresei eragiten dien administrazio-prozedurarik edo administrazio-kudeaketako lanik, eta, horregatik, jarduera ekonomikorako behar ez diren administrazio-kargak nahiz trabak ez dira handitzen.

Vitoria-Gasteiz,

Ander Añibarro Maestre
GAZTERIAKO ZUZENDARIA
(Elektronikoki sinatua)

O.E.

Marcos Muro Nájera
ENPLEGU ETA GAZTERIAKO SAILBURUORDEA
(Elektronikoki sinatua)